

ALKATEAREN ERABAKIA

GAIA: Luis Ezeiza herri eskolaren 55. urteurreneko ekintzak eta jarduerak.

ESPEDIENTEA: 2025TDIR0006

INTERESDUNA: KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA (IFK: G20640645)

Toki Araubidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legeak, 25. artikuluan, esaten du udalerriek, beraien interesak kudeatzeko eta beraien eskumenen esparruan, auzo-erkidegoaren beharrak eta nahiak betetzen lagundu dezaketen jarduera mota guztiak bultzatu eta nahi adina zerbitzu publiko egin ditzaketela. Lege agindu hori burutzeko moduetako bat erakunde eta elkarteei herri onurako jarduerak egiten laguntzea da.

Zentzu horretan, Eskoriatzako Udalak ekitaldi honetarako udal aurrekontuan 2000 euroko dirulaguntza bereizia aurreikusten du KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA-ren alde, 2025. urtean antolatuko dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzen laguntzeko.

Dirulaguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 22.2a) artikulua esaten du toki entitateetako aurrekontuetan aurreikusitako dirulaguntza izendunak zuzenean eman ahal izango direla, hitzarmenetan eta dirulaguntza horiek arautzen dituzten arauetan jaso bezala.

Euskara teknikariak egindako proposamenaren arabera, dirulaguntza arautzeko hitzarmenaren baldintzak kontuan hartuta, Idazkari-kontuhartzaileak egindako aldeko txostena ikusita, eta "Eskoriatzako Udalak dirulaguntzak emateko erregimena arautzeko ordenantza orokorra"-ren 6.artikuluak emandako eskumenak erabiliz, alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENEGOA.- Udalaren eta KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA-ren artean egin beharreko hitzarmena ONARTZEA eta sinatzea.

BIGARRENA.- KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKARTEA-ri 2000-ko dirulaguntza ematea onartzea, Luis Ezeiza herri eskolaren 55.urteurrenaren baitan 2025.urtean antolatu dituen jarduerak sortutako gastuak finantzatzeko. Dirulaguntza hori ordainketa bakarrean ordaintzea.

HIRUGARRENA.- 2000-ko gastua konprometitzea, aipatutako dirulaguntzari dagokiona, eta indarrean dagoen udal aurrekontuko 0400.481.323.60.01 partidari egozte.



Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

Titulua / Título:

2025TDIR0006-Alkate erabakia/Resolución (KOLDOTXO LUIS EZEIZA GURASO ELKART